




EB-ARALAR



DEBA

2009ko uztaila

Seguimos trabajando por conseguir otro Deba



Bestelako Deba bat lortzeko lanean jarraitzen dugu

EB-Aralar koalizioak ilusioari eusten dio bere bigarren legealdian

Bi urte joan dira EB-Aralar koalizioa Debako Udalera iritsi zenetik. Bi zinegotzi eskuratu genituen (Ina Aznal eta Joxemari Ostolaza), eta orduz geroztik, talde guztia ren laguntzarekin, hasieran jarri genituen helburuak eta irizpideak betetzen joan gara. Legealdia erdira heldu da, eta balantzea egiteko ordua ere bada. Zinegotzi kargua hartu eta berehala, garai hartako

Jaurlaritzako Kultura sailburuari egin genion bisita. Praileaitz ingurua babesteko neurriak eskatu genizkion orduan, alkatearekin batera egindako bisitan. Denbora ez da alferrik igaro, eta orain, Praileaitz harrobitik babesteko eskatu zuten horiek korrika eta presaka eman diote jarduera baimena Sasiolako hormigoi plantari. Eta hori egin du alkateak eta bere alderdiak

Udalean horren kontrako iritzia duten txostenak izan arren. Azalpenak eskatu ditugu, baina zalantzak ditugu ea iritsiko diren. Zalantza horiek badute arrazoi bat: aspaldian informazioa ukatzen ari zaizkigu Udaletik herriko zinegotziori. Ez dira lan egiteko baldintza onenak, baina EB-Aralar koalizioak legeladi hasierako ilusioari eusten diola berretsi nahi du.